

EBAZPENA, Bilbao Ekintzako presidenteara, Bilbao Ekintza, EPELen hutsik dagoen lanpostua betetzeko hautagaiak behin-betiko onartu eta baztertzeari, epaimahaia izendatzeari eta hautaketa-prozesuko lehen ariketa egiteko egunari buruzkoa.

Amaitu da Bilbao Ekintza, EPELen lanpostu hutsa betetzeko deitutako hautaketa-prozesuan onartuak eta baztertuak izan diren pertsonen behin-behineko zerrendaren akatsak zuzentzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea; deialdi hori Bilbao Ekintza erakundearen 2019ko Lan Eskaintza Publikoari dagokio eta horren oinarriak 2022ko maiatzaren 24ko 98 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, Deialdiaren 4. oinarrian ezartzen dena betez,

Bilbao Ekintza EPELeko lehendakariak honakoa EBAZTEN DU:

LEHENGOA.- Jakinaraztea ez dela erreklamaziorik egin epearen barruan prozesu honetako onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka.

BIGARRENA.- Hautaketa-prozesutik **kanpo uztea** ondoren zerrendatzen den pertsona, deialdian eskatzen den hizkuntza ez duelako:

- EXPTE BE 2019-0001: lanpostu 1, enpresa-sustapeneko teknikariarena.

BARRENECHEA

LANDETA

ESTIBALIZ

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen Eranskin moduan ematen den hurrengo deialdian onartutako eta baztertutakoen zerrenda onartzea.

- EXPTE BE 2019-0001: lanpostu 1, enpresa-sustapeneko teknikariarena. Lanpostu honek B teknikariaren kategoriari (A2) dagokion ordainsaria du.

Onartutakoen zerrendan agertzeak ez du esan nahi lanpostugaiek eskatutako baldintzak betetzen dituztela aintzatesten denik, eta betekizun eta baldintza horiek deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera egiztatu beharko dira epaimahaiak ondore horretarako ezarritako epean. Lanpostugairen batek deialdian eskatzen diren betekizunak betetzen ez baditu deialditik kanpo geratuko da eta jarduketa guztiak bertan behera geratuko dira; nolana ere, parte hartzeko eskabidean faltsutasuna egoteagatiko erantzukizuna izan dezake.

LAUGARRENA.- Epaimahaia Izendatzea. Deialdiaren Oinarri Berezetan ezarritakoaren arabera, hautaketa-prozesua epaitzeko ardura duen epaimahaia honela osatuko da:

- **EXPTE BE 2019-0001: lanpostu 1, enpresa-sustapeneko teknikariarena.**

PRESIDENTEA:

ALEJANDRO TARAMONA BERECIARTUA jauna, Bilbao Ekintzako Zerbitzu Orokorren Arloko Arduraduna eta, ordezko gisa, JOSÉ MARÍA ESCOLÁSTICO SÁNCHEZ jauna, Bilboko Udaleko Udal Etxebizitzaren Zuzendariorde Operatiboa eta Juridikoa.

KIDEAK:

MARÍA JESÚS DEL BLANCO PATINO andrea, Bilbao Ekintzako Enpresa eta Enplegu arloko Zuzendaria, eta EVA MARÍA SALCEDO PÉREZ DE OBANOS andrea, Bilbao Ekintzako Hiri Garapen (Invest In Bilbao) Unitateko Arduraduna, eta ordezko gisa CRISTINA LAUCIRICA AZCONA andrea, Bilbao Ekintzako Ekonomia eta Finantza Teknikaria eta MARÍA NATALIA SAIZ GONZÁLEZ andrea, Bilbao Ekintzako Ekonomia eta Finantza Teknikaria.

IDAZKARI 1:

JOSÉ IGNACIO RISUEÑO SERRANO jauna, Bilbao Ekintzako Lege eta Giza Baliabideen Arduraduna, eta ordezko gisa, ROSA ANA YURREBASO SESTAFE andrea, Bilboko Udaleko Zerbitzu Orokorretako Zuzendariordea.

BOSGARRENA.- Oposizio-faseko Lehenengo Ariketa egitea (1. zatia, gai-zerrenda orokorreko edukiei buruzko galdera-sorta, test motakoa, eta 2. zatia, gai-zerrenda espezifikoaren edukiei buruzkoa galdera zehatzak). Hautaketa-prozesuetako epaimahai kalifikatzaileak deialdietan onartutako **pertsona guztiei** egiten die deialdia:

Enpresa-Sustapeneko Teknikaria (EXPTE. BE 2019-0001) 2023ko irailaren 19an, 09:30etan, BILBAO ARENA Kirol Jauregian. Jauregi hori, Askatasuna Hiribidean, 13. zenbakian dago, (Miribilla) 48003 Bilbo. Oposizio-faseko lehen ariketa, nahitaezkoa eta baztertzaileria dena, egiteko NANA eta tinta beltz edo urdineko boligrafoa eraman behar dira.

Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu daiteke, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren aurrean, bestela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu daiteke zuzenean, bi hilabeteko epean, "Bizkaia Aldizkari Ofizialean" argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Hori guztia Administrazioa Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ebazpen hau erakundearen web-orrian eta aplikazio informatikoetan argitaratuko da.

Bilbon, 2022ko martxoaren 29an



XABIER OCHANDIANO MARTÍNEZ
Bilbao Ekintza EPELeko presidentea

I. ERANSKINA
EXPTE. BE 2019-0001
ENPRESA SUSTAPENENKO TEKNIKARIA
Txanda irekia

Onartuen behin-betiko zerrenda

| NAN * | Abizenak eta izena |
|----------|-----------------------------------|
| *41***44 | ETXEBERRIA OSORO, KRISTINA |
| *89***39 | ECHEVARRIA BILBAO, IMANOL |
| *904*5** | IBARRA SAINZ, LEIRE |
| ***3*469 | TORRES UGARTE, XABIER |
| ***0*152 | ZUBIZARRETA BARRENETXEA, LEIRE |
| *899***6 | CARASUSAN LLARENA, JOHANA |
| *231***2 | URIARTE TOTORIKAGUENA, AINHOA |
| *0***165 | PARDO GARCÍA, CECILIO |
| ***9*925 | GUZMAN AREITIO, ALICIA |
| *607***8 | LÓPEZ MENDEZONA, IÑIGO |
| *91***77 | DUBLANG URIBARRENA, MARTINA |
| *6***386 | ARPON SALAZAR, NAGORE |
| *23***54 | BERJÓN MARTÍN, ANDREA |
| *066*8** | BIKANDI IRAZABAL, CRISTINA |
| *88***98 | HAWARI BERRIOZABALGOITIA, YASMÍN |
| ***8*615 | EIZMENDI SASIAIN, OIHANA |
| ***1*215 | ZABALA FERNANDEZ, ITZIAR |
| ***2*072 | ENSUNZA CAMPOS, BEGOÑA |
| *8***089 | MIMENZA GARAY, ILAZKI |
| *891***6 | GARCÍA GARCÍA, ITZIAR |
| *065***5 | HORMAECHE GOROSTIZA, MARÍA TERESA |
| *60***32 | GONZÁLEZ GONZÁLEZ, ESTÍBALIZ |

Txanda irekia
Baztertuen behin-betiko zerrenda

| NAN* | Abizenak eta izena | Arrazoa |
|----------|--------------------------------|---------|
| ***9*279 | BARRENECHEA LANDETA, ESTÍBALIZ | 02 |

Baztertze-gakoak

| Kodea | Arrazoa |
|-------|----------------------------------|
| 02 | Eskatzen den hizkuntza ez izatea |

- NAN: Nortasun agiria. 4 digitu falta dira.